

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza, 2023-2026 urteetarako Gipuzkoako sukaldaritza-arloko enpresen Lan Hitzarmenaren erregistroa, gordailua eta argitalpena agintzen duena (20104585012023 kodea).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2023ko apirilaren 21ean sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak, enpresen izenean, eta ELA, LAB, CC.OO eta UGT sindikatuek, langileen izenean.

Bigarrena. 2023ko maiatzaren 2an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2023ko maiatzaren 4a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (4299)

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Trabajo y
Seguridad Social de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Empresas de Restauración de Gipuzkoa para los años 2023-2026 (código 20104585012023).

ANTECEDENTES

Primero. El día 21 de abril de 2023, se suscribió el convenio citado por la Asociación de Empresarios de Hostelería de Gipuzkoa, en representación de las empresas, y ELA, LAB, CC.OO y UGT, en representación de la parte trabajadora.

Segundo. El día 2 de mayo de 2023, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 4 de mayo de 2023.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (4299)

GIPUZKOAKO JATETXE-ARLOKO ENPRESEN
HITZARMEN KOLEKTIBOA 2023-2026

HITZAURREA

Gipuzkoako jatetxe-arloko enpresen hitzarmen kolektiboa negoziazio kolektiboaren emaitza da. Negoziazio hori 2019ko otsailaren 21ean hasi zen negoziazio-mahaia eratzean, eta jatetxe-arloko sektorea arautzeko beharrari erantzuten dio, Gipuzkoako Ostalaritzaren Hitzarmen Kolektiboa indargabetu ondoren. Hitzarmen horretan bi sektore arautzen ziren: ostatu-sektorea eta jatetxe-arlokoa. 2014an, ostatu-sektorea bereizi egin zen ostalaritzako hitzarmen horretatik, eta hitzarmen kolektibo propioa sinatu zuen Gipuzkoarako. Hori horrela izanik, jatetxe-arloko sektorea araudi-esparru propio eta espezifikorik gabe gelditu zen.

2019an hasitako negoziazio prozesua eten egin zen 2020ko martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak Covid-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuenean. Gertakariaren bilakaera azkarra izan zen nazioan eta nazioartean, eta, hori dela eta, administrazio publikoek neurri zorrotzak hartu behar izan zituzten osasun-krisi horri aurre egiteko. Ordura arte ez zen halako osasun-krisi ikaragarri izan; pertsona asko eta askori erasan zion, eta horien guztien eskubideek aparteko arriskua jasan zuten. Pandemiaren kontrolerako neurriek herritar guztiei eragin zieten, etxeko konfinamendua jasan behar izan baitzuten, eta horrek, jakina, jada hasitako negoziazioekin jarraitzea eragotzi zuen.

Bi urteko pandemiaren eta osasun-larrialdiaren ondoren, zeinak eragin zuzena izan baitzuen jatetxe-arloko sektorean eta sektoreko langileengan, 2022ko otsailaren 11n, Lehendakariaren 5/2022 Dekretuaren bidez, EAEn Covid-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera amaitu zela deklaratu zen. Murrizketak kendu ostean, jarduerari normaltasunez ekin zitzaion berriro, baina Gipuzkoako jatetxe-arloko sektorea osatzen duten alderdi guztiek bizi izandakoaren ondorenak jasan zituzten.

Sektoreko jarduera egonkortzen hasi zenean, alderdi sinatzaileek, zeinek elkarrizketa eta negoziazio kolektiboko prozesuarekin jarraitzeko konpromisoari beti eutsi baitiote, 2023ko martxoaren 14an ekin zioten berriro negoziazio-mahaiari, 2022ko otsailean Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz sortutako energia- eta inflazio-krisiak markatutako une sozio-ekonomiko batean.

Alderdi sinatzaileek, aurreko guztiaren jakitun, Gipuzkoako jatetxe-arloko enpresen hitzarmen kolektibo berria sinatu dute, eta, horrela, egungo krisi-egoerak eragindako sektorearen premiei erantzuten diete, baina, aldi berean, sektorearen lehiakortasunaren eta profesionalizazioaren aldeko apustua egiten dute, hura osatzen duten langileen beharrei eta errealitatei erantzuna ematen saiatuz. Gipuzkoako jatetxe-arloko enpresen hitzarmen kolektibo berri hau lau urtez egongo da indarrean, hots, 2026ko abenduaren 31ra arte, eta Gipuzkoako Ostalaritzaren Hitzarmen Kolektibo indargabetua ordeztzen du; hala ere, alderdi sinatzaileek onartzen dute hitzarmen historiko horren elementu esanguratsuek osatzen dutela jatetxe-arloko sektorearen ondarea, nahiz eta indargabetu zenetik denbora igaro den.

Alderdi sinatzaileek onartzen dute beharrezkoa dela hitzarmen honek denboran irautea, bai enpresen beharrei erantzuteko, ingurune aldakorren etengabe egokitzen ari baitira, bai sektoreko langileei lan-baldintza egonkor eta bermatzaileak emateko behar sindikalei erantzuteko. Horregatik, elkarrizketaren eta egungo egoerara egokitzearen ondorioz, eta sektoreko zenbait erabilera eta ohitura errotuta daudela ahaztu gabe, Gipuzkoako Jatetxe-arloko Enpresen Hitzarmen Kolektiboa sinatu da.

CONVENIO COLECTIVO DE EMPRESAS DE
RESTAURACIÓN DE GIPUZKOA 2023-2026

PREÁMBULO

El Convenio Colectivo de Empresas de Restauración de Gipuzkoa es fruto de la negociación colectiva que se inició con la constitución de la mesa negociadora del 21 de febrero de 2019 y responde a la necesidad de regular el sector de la restauración tras la pérdida de la vigencia del Convenio Colectivo de Hostelería de Gipuzkoa, donde se regulaban dos sectores; el de alojamientos y el de restauración. En el año 2014 se produjo la desvinculación del citado convenio de hostelería, del sector de alojamiento, suscribiendo éste su propio Convenio Colectivo para el territorio de Gipuzkoa. Siendo esto así, el sector de la restauración quedó sin un marco normativo propio y específico que lo regulara.

El proceso de negociación iniciado en el año 2019, se vio interrumpido cuando el 11 de marzo de 2020 la Organización Mundial de la Salud elevó la situación de emergencia de salud pública ocasionada por la Covid-19, a pandemia internacional. La rapidez en la evolución de los hechos, a escala nacional e internacional, requirió por parte de las administraciones públicas la adopción de medidas drásticas para hacer frente a tal crisis sanitaria, sin precedentes hasta la fecha y de enorme magnitud, tanto por el elevado número de personas afectadas, como por el extraordinario riesgo para los derechos de todas ellas. Las medidas de control pandémico afectaron a toda la población, que se vio obligada a soportar un confinamiento domiciliario, lo que obviamente imposibilitó la continuidad de las negociaciones ya iniciadas.

Tras dos años de pandemia y emergencia sanitaria, con incidencia directa en el sector de la restauración y las personas trabajadoras del mismo, el 11 de febrero de 2022 mediante el Decreto 5/2022 del Lehendakari, se declaró la finalización en Euskadi de la situación de emergencia sanitaria derivada de la pandemia ocasionada por la Covid-19. Finalizadas las restricciones comenzó a retomarse la actividad con cierta normalidad, pero arrastrando las secuelas de lo vivido por todas las partes que integran el sector de la restauración de Gipuzkoa.

Una vez comenzó a estabilizarse la actividad en el sector, las partes firmantes, quienes siempre han mantenido su compromiso de continuar con el proceso de diálogo y negociación colectiva, retomaron la mesa de negociación el 14 de marzo de 2023, en un momento socio-económico marcado por una crisis energética y de inflación derivada de la invasión rusa de Ucrania producida en febrero de 2022.

Las partes firmantes, conscientes y conocedoras de todo lo anterior, suscriben el nuevo Convenio Colectivo de las empresas de restauración de Gipuzkoa y lo hacen dando así respuesta a las necesidades de un sector afectado por la situación de crisis actual, pero que, al mismo tiempo, apuesta por su competitividad y profesionalización, intentando dar respuesta a las necesidades y realidades de las personas trabajadoras que lo integran. Este nuevo convenio colectivo de empresas de restauración de Gipuzkoa se acuerda con una vigencia de cuatro años, hasta el día 31 de diciembre de 2026 y sustituye al extinto Convenio Colectivo de Hostelería Gipuzkoa; si bien las partes firmantes reconocen que elementos significativos de ese histórico convenio, constituyen el acervo del sector de la restauración, pese al tiempo transcurrido desde su pérdida de vigencia.

Las partes firmantes reconocen la necesidad de que el presente convenio perdure en el tiempo para dar respuestas, tanto a las necesidades de las empresas, en constante proceso de adaptación a un entorno cambiante; como a las necesidades sindicales de dotar a las personas trabajadoras del sector de condiciones laborales estables y garantistas. Es por ello que, fruto del diálogo; de la adaptación a las circunstancias actuales; y sin perder de vista el arraigo de determinados usos y costumbres del sector, se suscribe el Convenio Colectivo de las Empresas de Restauración de Gipuzkoa.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Alderdi sinatzaileak.

Bi ordezkarietzek, hau da, sindikalak eta enpresakoak, berretsi egin dute elkarri aitortzen diotela solaskide gisa zilegitasuna eta ordezkarietza dutela jatetxe-arloko sektoreko negozioetako kolektiboko probintzia-eremuan, eta hitzarmen kolektibo hau sinatu dute Gipuzkoako jatetxe-arloko enpresentzat.

Alde batetik, ELAK, LABek, CCOO eta UGTk sinatu dute ordezkarietza sindikal gisa, eta, bestetik, enpresen ordezkari gisa, Gipuzkoako Ostalaritza Enpresaburuen Elkarteak.

II. KAPITULUA

APLIKAZIO-EREMUA

2. artikulua. Eremu funtzionala.

Hitzarmen kolektibo hau jatetxe-arloko sektoreko enpresei eta langileei aplikatuko zaie. Sektore horretan sartzen dira, titulartasuna eta lortu nahi diren helburuak alde batera utzita, instalazio finko edo mugikorretan eta modu iraunkorrean zein noizbehinka, honako jarduerak hauek egiten dituzten enpresa guztiak:

– Kontsumitzeko prest dauden produktuen zerbitzuak ematen dituzten enpresak, hala nola jatetxeak, bazkari-etxeak, ekitaldiarako catering-establezimenduak, janari lasterreko establezimenduak, pizzeriak, hanburguesategiak, ogitarteko-dendak, krepe-dendak, txosnak, foodtruckak, sukaldaritzaren modernoko kateak, hondartzako txosnak, terrazak, mahaitxoak, kioskoak eta abar.

– Kolektibitateentzako elikagaiak eta edariak (lantokiak eta ikastetxeak, osasun-zentroak, jantoki kolektiboak, ospitaleetako jantokiak, egoitzak, etab.), bai bezeroen instalazioak (sukaldeak) bai zerbitzuak ematen dituen enpresaren instalazioak (sukaldeak) erabiltzen badira ere.

– Kafeak, tabernak, taberna bereziak, kafetegiak, garagardotegiak, whiskitegiak, izozkitegiak, txokolategiak, dastalekuak, te-aretoak eta antzekoak, nahiz eta jatekorik ez zerbitzatu.

– Dantzalekuak edo diskotekak, kafe-antzokiak eta antzekoak, baita kasinoetako, bingoetako eta joko-aretoetako janari- edo edari-zerbitzuak ere.

– Billarrak, mota guztietako jolas-aretoak eta «cyberkafeak» edo dibertimendurako eta aisialdirako beste zerbitzu batzuk.

– Janari elaboratuak edo prestatuak eta edariak banatzeko zerbitzuak, oinez edo garraio-araudian ezarritako administrazio-baimenik behar ez duen edozein ibilgailutan, establezimenduen beraren zerbitzua emateko edo beste enpresa baten enkariguz, plataforma digitalak barne, edo horien bidez.

– Taberna-jatetxe zerbitzuak eskaintzen dituzten kirol-establezimendu, gimnasio, osasun- eta ongizate-zentro eta bainuetxe guztietako jatetxe-zerbitzuak.

3. artikulua. Lurralde-eremua.

Hitzarmen kolektibo hau probintzia eremuko da, eta, beraz, 2. artikuluan zerrendatutako enpresei aplikatuko zaie, baldin eta haien lantokiak Gipuzkoako lurralde historikoan badaude.

4. artikulua. Pertsona-eremua.

1. Hitzarmen kolektibo honek eremu funtzionalean aipatutako jardueretan lan egiten duten enpresen eta langileen arteko lan-harremanak arautzen ditu.

2. Hitzarmen kolektibo honen eremutik kanpo geratzen dira goi-zuzendaritza kontratuak dituzten pertsonak, bai eta Langileen Estatutuaren Legea onartzen duen urriaren 23ko 2/2015

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Partes firmantes.

Ambas representaciones, sindical y empresarial, reiterando el reconocimiento mutuo de legitimación y representatividad como interlocutores en el ámbito provincial de negociación colectiva del sector de la restauración, firman el presente Convenio Colectivo para las empresas de restauración de Gipuzkoa.

Lo suscriben, de una parte, como representación sindical, ELA, LAB, CCOO y UGT; y de otra parte, como representación empresarial, la Asociación de Empresarios de Hostelería de Gipuzkoa.

CAPÍTULO II

ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 2. Ámbito funcional.

El presente convenio colectivo será de aplicación a las empresas y trabajadores del sector de la restauración. Se incluyen en este sector todas las empresas que, independientemente de su titularidad y fines perseguidos, realicen, en instalaciones fijas o móviles y tanto de manera permanente como ocasional, las actividades que se relacionan a continuación:

– Empresas que presten servicios de productos listos para su consumo, tales como restaurantes, casa de comida, establecimientos de catering para eventos, de comida rápida, pizzerías, hamburgueserías, bocadillerías, creperías, txosnas, foodtrucks, cadenas de restauración moderna, chiringuitos de playa, terrazas, veladores, quioscos etc.

– Alimentos y bebidas a Colectividades (centros de trabajo y enseñanza, centros sanitarios, comedores colectivos, comedores de hospitales, residencias etc.), tanto si para ello se utilizan las instalaciones (cocinas) de los clientes como las propias de la empresa que presta los servicios.

– Cafés, bares, bares especiales, cafeterías, cervecerías, whiskerías, heladerías, chocolaterías, degustaciones, salones de té y similares, aunque no sirvan comidas.

– Salas de baile o discotecas, cafés-teatro y similares, así como los servicios de comidas o bebidas en casinos, bingos y salones de juego.

– Billares, toda clase de salones recreativos y «cybercafes» u otros servicios de ocio y esparcimiento.

– Los servicios de reparto de comidas elaboradas o preparadas y bebidas, a pie o en cualquier tipo de vehículo que no precise autorización administrativa establecida por la normativa de transporte, como prestación de servicio propio del establecimiento o por encargo de otra empresa, incluidas las plataformas digitales o a través de las mismas.

– Los servicios de restauración de todos aquellos establecimientos deportivos, gimnasios, centros de salud y bienestar, balnearios, en los que se ofrezcan servicios de Bar - Restaurante.

Artículo 3. Ámbito territorial.

El presente convenio colectivo es de ámbito provincial, por lo que será de aplicación a las empresas relacionadas en su artículo 2 cuyos centros de trabajo se encuentren ubicados en el territorio histórico de Gipuzkoa.

Artículo 4. Ámbito personal.

1. Este convenio colectivo regula las relaciones laborales entre las empresas y las personas trabajadoras que prestan sus servicios en las actividades citadas en el ámbito funcional.

2. Queda expresamente excluido del ámbito del presente convenio colectivo las personas con contratos de alta dirección, así como todas las relaciones laborales especiales previstas en

Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako lan-harreman berezi guztiak ere.

5. artikulua. Denbora-eremua.

Hitzarmen kolektibo hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2026ko abenduaren 31ra arte aplikatuko da.

Hitzarmen kolektibo honen ondorio ekonomikoak 2023ko martxoaren 1etik aurrera sortuko dira, eta hitzarmena argitaratzen den egunean enpresan alta emanda dauden langileek bakarrik jasoko dituzte. Horiek jasotzetik salbuesten dira hitzarmena argitaratu aurretik edozein arrazoirengatik baja hartu duten langileak.

Hitzarmenaren amaiera automatikoki salatuko da indarraldia amaitzen denean, eta bi hilabeteko epean negoziazio-mahaia eratu beharko dute alderdiek.

Espresuki hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela salatu eta hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hitzarmen hau ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

6. artikulua. Osotasunari atxikitzea.

1. Hitzarmen honetan itundutako baldintzek osotasun organiko eta zatiezina dute. Hala ere, jurisdikzio eskudunak itunetako bat deuseztatzen edo baliogabetzen badu, gainerako testu konbentzionala indarrean geratuko da.

2. Halakorik gertatuz gero, hitzarmen kolektibo honen negoziatio-batzordea dagokion ebazpena irmoa izan eta hurrengo hamar egunen barruan bildu beharko da, sortutako arazoari konponbidea emateko. Ebazpena irmoa izan eta hurrengo 45 egunetan alderdi sinatzaileek akordiorik lortzen ez badute, deuseztatutako klausula jarri gabekotzat joko da.

7. artikulua. Arau-lehentasuna.

Hitzarmen kolektibo honetan berariaz aurreikusi ez den orori dagokionez, Langileen Estatutuaren Legea onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuko da, bai eta unean-unean indarrean dagoen lan-legeria osatzen duten gainerako legezko eta/edo erregelamenduzko arauak ere.

8. artikulua. Baldintza onuragarriagoak.

Enpresek konpromisoa hartzen dute beren langileekin ezarritako baldintza onuragarriagoak errespetatzeko, hitzarmen honetan ezarritakoen gainetik.

9. artikulua. Konpentsazioa eta xurgapena.

Edozein arrazoirengatik –lege-agindua, hitzarmen kolektiboa, epaia, kontratu indibiduala, erabilera edo ohitura, enpresaren borondatezko emakida edo beste edozein– enpresek hitzarmen hau sinatu aurretik egindako borondatezko hobekuntzek eta/edo hitzarmenaren eraginezko hobekuntzek hitzarmen honetan ezarri diren baldintza guztiak konpentsatu eta xurgatu ahal izango dituzte, soldatarekin zerikusia izan edo ez, oso-osorik eta urteko zenbatekoan.

III. KAPITULUA

LANBIDE-SAILKAPENA

10. artikulua. Lanbide-taldeak.

Hitzarmen honen eraginpeko langileak jarraian jasotako lanbide-taldeetan sailkatuko dira, betetzen dituzten funtzioen arabera, bai eta lortzen duten prestakuntzaren, lanbide-esperientziaren edo erantzukizunaren arabera ere. Horretarako, kontuan

el artículo 2 del Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre por el que se aprueba la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

Artículo 5. Ámbito temporal.

El presente convenio colectivo entrará en vigor al día siguiente de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y será de aplicación, hasta el día 31 de diciembre de 2026.

La fecha de los efectos económicos que se deriven del presente convenio colectivo, será del 1 de marzo de 2023, correspondiendo su percibo únicamente a aquellas personas trabajadoras que se encuentren de alta en las empresas a la fecha de la publicación del mismo. Se excluye de su percibo expresamente a aquellos trabajadores y trabajadoras que hubieren causado baja en las mismas por cualquier causa con anterioridad a la publicación del presente convenio.

Este Convenio quedará automáticamente denunciado a la finalización de su vigencia obligándose las partes en el plazo de dos meses a constituir la mesa de negociación.

Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en el art. 86.3 ET, que una vez denunciado y concluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia del convenio hasta la suscripción por ambas partes de otro que lo sustituya.

Artículo 6. Vinculación a la totalidad.

1. Las condiciones pactadas en este convenio colectivo configuran un todo orgánico e indivisible. No obstante, en el supuesto de que la jurisdicción competente anulase o invalidase alguno de los pactos, quedará vigente el resto del texto convencional.

2. Si se diese tal supuesto, la comisión negociadora de este convenio colectivo deberá reunirse dentro de los diez días siguientes al de la firmeza de la resolución correspondiente al objeto de resolver el problema planteado. Si en el plazo de 45 días a partir de la fecha de la firmeza de la resolución en cuestión las partes signatarias no alcanzasen un acuerdo, la cláusula anulada se tendrá por no puesta.

Artículo 7. Prelación de normas.

En lo no previsto expresamente en el presente convenio colectivo, será de aplicación el Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre por el que se aprueba la Ley del Estatuto de los Trabajadores, y demás normas legales y/o reglamentarias que conformen la legislación laboral vigente en cada momento.

Artículo 8. Condiciones más beneficiosas.

Las empresas se comprometen a respetar las condiciones más beneficiosas que, sobre las que se fijan en el presente convenio, pudieran tener establecidas con sus trabajadores.

Artículo 9. Compensación y absorción.

Todas las condiciones que se establecen en el presente Convenio, sean o no de naturaleza salarial, son absorbibles y compensables en su conjunto y cómputo anual con las mejoras voluntarias y/o a cuenta convenio que vinieran anteriormente satisfaciendo las empresas, bien sea por imperativo legal, Convenio Colectivo, laudo, contrato individual, uso o costumbre, concesión voluntaria de las empresas o por cualesquiera otras causas.

CAPÍTULO III

CLASIFICACIÓN PROFESIONAL

Artículo 10. Grupos profesionales.

Las personas trabajadoras afectadas por el presente Convenio, en atención a las funciones que desarrollen, así como la formación, experiencia profesional, o responsabilidad que adquieran, serán clasificadas en los siguientes Grupos Profesionales

hartuko da jarraian aipatzen den lanbide-egitura berriak zentzu-koagoa den produkzio-egitura lortu nahi duela, betiere langileen duintasuna galdu gabe, eta lanbide-sustapenerako aukera eta bidezko ordainsaria murriztu gabe.

Eremu funtzional hauek ezarri dira:

teniendo en cuenta que la nueva estructura profesional que continuación se refiere, y que pretende obtener una estructura productiva más razonable, todo ello sin merma de la dignidad, oportunidad de promoción y justa retribución que corresponde a cada trabajador y trabajadora.

Se establecen para ellos las siguientes Áreas Funcionales:

LEHEN EREMU FUNTZIONALA: ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	
1. lanbide-taldea	Administrazioko burua
2. lanbide-taldea	Harreragilea Administraria Harreman publikoetarako langilea Komertziala Telefonista
3. lanbide-taldea	Administrari laguntzailea
BIGARREN EREMU FUNTZIONALA: SUKALDEA ETA EKONOMATUA	
1. lanbide-taldea	Sukalde-burua 2. sukalde-burua Cateringeko burua
2. lanbide-taldea	Sorta-burua Sukaldaria Gozogilea Ekonomatuko arduraduna Sukalde-laguntzailea Ekonomatuko laguntzailea
3. lanbide-taldea	Sukaldeko laguntzailea/garbitzailea
HIRUGARREN EREMU FUNTZIONALA: JATETXEA, ARETOA, TABERNA ETA ANTZEKOAK, KOLEKTIBITATEAK ETA CATERING PISTA	
1. lanbide-taldea	Jatetxe- edo areto-burua Jatetxeko edo aretoko 2. burua Cateringeko operazio-burua Zentroko gerentea
2. lanbide-taldea	Sektore-burua Zerbitzaria Tabernaria Sommelierra Cateringeko areto-burua Cateringeko gainbegiralea Kolektibitateen gainbegiralea Sukaldaritza modernoko gainbegiralea Cateringeko prestatzaile edo muntatzailea Cateringeko ekipo-gidaria Sukaldaritza modernoko prestatzailea
3. lanbide-taldea	Zerbitzari laguntzailea Cateringeko ekipo-laguntzailea Kolektibitateetako monitoreo edo zaintzailea Kolektibitateen laguntzailea Cateringeko prestatzaile edo muntatzaile laguntzailea Sukaldaritza modernoko laguntzailea Janarien eta edarien banatzailea
LAUGARREN EREMU FUNTZIONALA: MANTENTZE-ZERBITZUAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK	
1. lanbide-taldea	Cateringeko zerbitziburua Mantentze-lanen eta zerbitzu osagarrien arduraduna Mantentze-lanen eta cateringeko zerbitzu teknikoaren arduraduna (flota edo instalazioak eta eraikinak)
2. lanbide-taldea	Ataleko arduraduna Mantentze-lanetako eta zerbitzu osagarrietako espezialista Mantentze-lanetako eta cateringeko zerbitzu teknikoetako espezialista (flota edo instalazioak eta eraikinak)
3. lanbide-taldea	Mantentze-lanetako eta zerbitzu osagarrietako laguntzailea Garbitzailea

ÁREA FUNCIONAL PRIMERA: ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN	
Grupo profesional 1.º	Jefe/a Administración
Grupo profesional 2.º	Recepcionista Administrativo/a Relaciones públicas Comercial Telefonista
Grupo profesional 3.º	Auxiliar Administrativo
ÁREA FUNCIONAL SEGUNDA: COCINA Y ECONOMATO	
Grupo profesional 1.º	Jefe/a cocina 2.º jefe/a cocina Jefe/a catering
Grupo profesional 2.º	Jefe/a partida Cocinero/a Repostero/a Encargado/a economato Ayudante/a cocina Ayudante/a economato
Grupo profesional 3.º	Auxiliar cocina/limpiador
ÁREA FUNCIONAL TERCERA: RESTAURANTE, SALA, BAR Y SIMILARES, COLECTIVIDADES, Y PISTA PARA CATERING	
Grupo profesional 1.º	Jefe/a restaurante o sala 2.º jefe/a restaurante o sala Jefe/a operaciones de catering Gerente de centro
Grupo profesional 2.º	Jefe/a sector Camarero/a Barman/Barwoman Sumiller/a Jefe/a sala catering Supervisor/a catering Supervisor/a colectividades Supervisor/a restauración moderna Preparador/a montador/a catering Conductor/a equipo catering Preparador/a restauración moderna
Grupo profesional 3.º	Ayudante/a camarero Ayudante/a equipo catering Monitor/a o cuidador/a colectividades Asistente/a colectividades Asistente/a preparador/montador catering Asistente/a restauración moderna Repartidor/ra de comidas y bebidas
ÁREA FUNCIONAL CUARTA: SERVICIOS DE MANTENIMIENTO Y SERVICIOS AUXILIARES	
Grupo profesional 1.º	Jefe/a servicios catering Encargado/a mantenimiento y servicios auxiliares Encargado/a mantenimiento y servicios técnicos catering (flota o instalaciones y edificios)
Grupo profesional 2.º	Encargado/a sección Especialista mantenimiento y servicios auxiliares Especialista mantenimiento y servicios técnicos catering (flota o instalaciones y edificios)
Grupo profesional 3.º	Auxiliar mantenimiento y servicios auxiliares Limpiador/a

Etorbizunean gai horri dagokionez egin daitezkeen aldaketak artikulu honetan txertatuzat joko dira, eta, beraz, hitzarmen honen eremuan aplikatuko dira.

11. artikulua. Funtzioak zehaztea.

Funtzioak zehazteari dagokionez, I. eranskinean jasotakoa hartuko da kontuan, aintzat izanda adierazpenekoak eta orientagarriak baino ez direla.

Las modificaciones que sobre esta materia pudieran producirse a futuro se darán por incorporadas en este artículo, resultando por tanto de aplicación en el ámbito de este Convenio.

Artículo 11. Definición de funciones.

En cuanto a la definición de funciones se estará a lo especificado en el anexo I, teniendo en cuenta que las mismas son meramente enunciativas y orientativas.

Hitzarmen honi, II. eranskin gisa, Ostalaritzako Industriarako lehengo Lan Ordenantzatik nahiz Gipuzkoako 2008-2010eko Ostalaritzaren Hitzarmen Kolektibotik datozen lanbide-kategorien, okupazioen eta lanpostuen eta egungo lanbide-taldeen arteko baliokidetzari buruzko taula bat erantsi zaio.

Lanbide-sailkapeneko sistema horren bidez, enpresen ekoizpen- eta antolaketaren egiturara modu zentzuzkoagoan egokitu nahi da, lanaren prestazioa jardueraren aldaketa ekonomiko, teknologiko, produktibo eta antolamenduzkoetara egokituz, langileen duintasuna galdu gabe, eta lanbide-sustapenerako aukerak eta bidezko ordainsaria murriztu gabe.

IV. KAPITULUA

ORDAINSARI-SISTEMA ETA KONTRATAZIOA

12. artikulua. Ordainsari-sistema.

Ordainsariaren oinarriko sistema soldata bermatuarena izango da, aurreko puntuan zerrendatutako jardueretako lanbide-taldeetako lanpostuen arabera. Lanpostu horiek III. eranskinen ezarritako ordainsari-mailetara atxikita egongo dira, konpentsagarriak eta xurgagarriak diren soldata-osagarriak barne (borondatezko hobekuntza eta/edo hitzarmenaren eraginezko hobekuntza).

Aipatutako kategoriez gain, sektorean alde aurretik lan-esperientziarik izan ez duten langileei ostalaritzako laguntzailearen kalifikazio berezia aitortuko zaie, eta kategoria hori izan ahalko dute gehienez ere 12 hilabetez. Epe hori 6 hilabetera murriztu daiteke langileak bere lanpostuarekin lotutako prestakuntza ikastaroak egin izana egiaztatzen bada eta ikastarook gutxienez 120 orduko iraupena izan badute gaitasunen arloarekin eta/edo elikagaien manipulatzailer txartelarekin zerikusia duten jakintzei lotuta.

Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, esperientziarik gabeko kontratazio gisa honakoa ulertuko da: enpresan sartzerako unean, sektorean gutxienez sei hilabetez lan egin izana egiaztatzen ez duten pertsona gutzien kontratazioa.

Kalifikazio berezia eta horri dagozkion ordainsariak lanaldi osoko kontratuetan bakarrik aplikatu daitezke; beraz, lanaldi partzialeko kontratuetan ezin daitezke aplikatu.

Era berean, ez zaie aplikatuko kolektibitateetako enpresetan lan egiten duten langileei, ezta garbitzaileei eta sukaldelaguntzaileei ere.

Kontratuak pertsona ezberdinetan kateatzea saihesteko, lanpostu berdinean kategoria berezian izateko denbora-muga 6 edo 12 hilabetezkoa izango da prestakuntza artikulu honetan ezarritako baldintzetan egiaztatzen den edo ez arabera. Lanpostu berdinerako beste kontratazio bat egin beharko litzateke, baldin eta aurreko lan-harremana amaitzeko arrazoia borondatezko baja eta bidezko kaleratzea bada. Kasu horietan, adierazitako 6 edo 12 hilabeteak batu arte kenduko litzatekeen denborarako izango litzateke kontratazioa, salbu eta lan-harremana amaitzeko arrazoia probaldia ez gaituzte bada; kasu horretan, beste kontratazio bat egin beharko litzateke, aurreko langileak lan egindako denbora metatu gabe.

Era berean, ordainsari horiek ez zaizkie aplikatuko ostalaritzako goi-mailako lanbide heziketa espezifiko edo maila bereko edo altuagoko titulazioak dituzten langileen kontratazioei, ezta ostalaritzako lanbide heziketako hiru urteko ziklo bat gainditu duten langileen kontratazioei ere.

Ostalaritzako laguntzailearen kategoria berezi horri dagokion ordainsaria III. eranskinen dago ezarrita.

Se incorpora al presente Convenio, como anexo II una tabla sobre la correspondencia de las categorías profesionales, ocupaciones y puestos de trabajo, tanto procedentes de la extinta Ordenanza de Trabajo para la Industria de Hostelería, como del Extinto Convenio Colectivo de Hostelería de Gipuzkoa 2008-2010, a los actuales grupos profesionales.

Este sistema de clasificación profesional pretende obtener una más razonable acomodación a la estructura productiva y organizativa de las empresas adaptando la prestación del trabajo a los cambios económicos, tecnológicos, productivos y organizativos de la actividad, sin merma alguna de la dignidad, oportunidades de promoción profesional y justa retribución de los trabajadores y trabajadoras.

CAPÍTULO IV

SISTEMA RETRIBUTIVO Y CONTRATACIÓN

Artículo 12. Sistema retributivo.

Se establece como sistema base de retribución el de Salario garantizado, con arreglo a los distintos puestos de trabajo de los grupos profesionales de las actividades relacionadas en el punto anterior, y que estarán adscritas a los niveles retributivos establecidos en el anexo III, incluido los complementos salariales compensables y absorbibles (mejora voluntaria y/o a cuenta convenio).

Además de las categorías ya conocidas, para aquellas personas trabajadoras contratadas sin experiencia laboral previa en el sector, se reconocerá una calificación especial como auxiliar de hostelería, pudiendo permanecer en esa situación durante un periodo máximo de 12 meses. Ese período podrá verse reducido a 6 meses mediante la acreditación por parte de la persona trabajadora de haber realizado cursos de formación vinculados a su puesto laboral y que en conjunto hayan tenido una duración mínima de 120 horas en el área de habilidades y/o carnet de manipulador de alimentos.

A los efectos de lo previsto en este artículo, se entenderá por contratación sin experiencia la realizada con personas que, en el momento de su ingreso en la empresa, no acrediten haber prestado servicios en el sector durante al menos seis meses.

La calificación especial y las retribuciones correspondientes sólo serán de aplicación para los contratos a jornada completa no siendo por tanto de aplicación para las contrataciones a tiempo parcial.

Tampoco será de aplicación para el personal que preste servicios en empresas de colectividades ni para las categorías de limpiador - limpiadora, ni ayudante de cocina.

Con el fin de evitar la concatenación de contratos en diferentes personas, se establece el límite temporal de la categoría especial en un mismo puesto de trabajo en 6 meses o 12 meses en función de si se acredita o no formación en función de lo establecido en este artículo. Sólo procedería realizar una nueva contratación para un mismo puesto de trabajo en el supuesto de que la causa de finalización de la relación laboral anterior fuera por baja voluntaria y despido procedente, en estos casos la contratación sería por el tiempo que restará hasta sumar los 6 o 12 meses señalados, salvo si la causa de finalización fuera la no superación del período de prueba, supuesto en que procedería una nueva contratación sin acumular el tiempo trabajado por el anterior trabajador.

Asimismo, estos salarios no serán de aplicación a las contrataciones de titulados con nivel igual o superior a Formación Profesional Específica de Grado Superior en hostelería, o que hayan superado un ciclo de tres años de Formación Profesional de Hostelería.

La retribución correspondiente a esta categoría especial de auxiliar de hostelería queda establecida en el anexo III.

Hitzarmen honek 2023ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta argitaratzen den egunean sektoreko enpresetan altan dauden langileentzat soilik izango dira horiek.

Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek 4 hilabeteko epea adosten dute, argitaratzen denetik aurrera sortzen diren soldatak eta atzerapenak erregularizatu ahal izateko.

13. artikulua. Soldata-igoerak eta -berrikuspenak.

Hitzarmen honetako soldatak kalkulatzeko, Gipuzkoako Ostalaritzaren Hitzarmen indargabetuko soldata-eta hartu dira erreferentziatzat, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako azken soldata-eta hartu dira eguneratu dira % 12an. Soldata bermatuak eta hitzarmenean araututako osagarriak eguneratu ondoren, 2023ko martxoaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra aplikatuko dira.

2024. urterako, 2023ko KPIa gehi % 3ko soldata-igoera adostu da, eta ekitaldiko soldata-igoeraren muga % 6 izango da. Igoera hori bermatutako soldataren gainean aplikatuko da, baita hitzarmen honetan arautzen diren osagarrien gainean ere.

2025. urterako, 2024ko KPIa gehi % 3ko soldata-igoera adostu da, eta ekitaldiko soldata-igoeraren muga % 6 izango da. Igoera hori bermatutako soldataren gainean aplikatuko da, baita hitzarmen honetan arautzen diren osagarrien gainean ere.

2026. urterako, 2025eko KPIa gehi % 3ko soldata-igoera adostu da, eta ekitaldiko soldata-igoeraren muga % 6 izango da. Igoera hori bermatutako soldataren gainean aplikatuko da, baita hitzarmen honetan arautzen diren osagarrien gainean ere.

Bi alderdiek adostu dute urteko soldata-igoeraren muga % 6koa izango dela 2024, 2025 eta 2026ko ekitaldietarako. Hala, bada, 2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietako urte arteko KPIen bilakaerak urte bakoitzerako itundutako % 3 gehigarria berreskuratzea eragozten badu, aldea hurrengo ekitaldian konpentsatuko da -betiere urteko % 6ko muga errespetatuz-, edo, hala badagokio, 2026. urteko taulen gainean, 2027ko urtarillaren 1etik aurrera. Kasu horretan, atzerapenen ordainketa eta dagokion eguneratzea 2027. urteko lehen hiruhilekoan egingo da. Erregularizazio hori aplikatu behar bada, ateratzen diren soldata-eta hartu dira 2027ko urtarillaren 1etik aurrera finkatuko dira.

14. artikulua. Aparteko haborokinak.

Hitzarmen kolektibo honen eraginpeko langile guztiak arauzko aparteko bi ordainsariak eta antzinasuna jasoko dituzte, hala badagokio, hileroko hainbanatuta, alderdiek bestelakorik adostu ezean. Hainbanaketarako adostasunik ez badago, ordainsariak zutailaren 15ean eta abenduaren 15ean ordainduko dira.

15. artikulua. Antzinasun-plusa.

1. Hitzarmen honen eraginpeko langileen antzinasun-plusa hirurtekotan sortuko da. Gehienez ere hamar hirurteko jasoko dira.

2. Hitzarmen honen eraginpeko langileak hitzarmen hau indarrean jartzen denetik aurrera hasiko dira antzinasuna zenbatzen, hau da, 2023ko martxoaren 1etik aurrera.

3. Hala eta guztiz ere, hitzarmen hau indarrean jartzen den egunean antzinasun-osagarria jasotzen ari ziren langileen kasuan, osagarri hori izoztu eta ad personam osagarri gisa mantenduko dute, 2023ko otsailaren 28an jasotako zenbateko gordin errealean. Zenbateko hori ezin izango da xurgatu edo konpentsatu, baina antzinasuna sortuko dute hitzarmenaren indarraldia hasten denetik aurrera.

La fecha de efectos económicos del presente convenio será desde el 1 de marzo de 2023 y solo para aquellas personas trabajadoras que se encuentren de alta en las empresas del sector, a la fecha de la publicación.

Las partes firmantes del presente convenio pactan un plazo de 4 meses desde la publicación para poder regularizar los salarios y atrasos que devenguen tras la de la publicación.

Artículo 13. Incrementos y revisiones salariales.

Para el cálculo de los salarios del presente convenio, se han tomado como referencias las tablas salariales del extinto Convenio de Hostelería de Gipuzkoa, actualizando las últimas tablas salariales publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en un 12 %. Una vez realizada esa actualización de los salarios garantizados y complementos regulados en convenio, se aplicarán desde el 1 de marzo de 2023 al 31 de diciembre de 2023.

Para el año 2024 se acuerda un incremento salarial equivalente al IPC resultante en el 2023 más un 3 %, estableciendo como tope del incremento salarial en el ejercicio, el 6 %. La aplicación de dicho incremento se efectuará sobre el salario garantizado, así como sobre los complementos que se regulan en el presente convenio.

Para el año 2025 se acuerda un incremento salarial equivalente al IPC resultante del 2024 más un 3 %, estableciendo como tope del incremento salarial en el ejercicio, el 6 %. La aplicación de dicho incremento se efectuará sobre el salario garantizado, así como sobre los complementos que se regulan en el presente convenio.

Para el año 2026 se acuerda un incremento salarial equivalente al IPC resultante del 2025 más un 3 % estableciendo como tope del incremento salarial en el ejercicio, el 6 %. La aplicación de dicho incremento se efectuará sobre el salario garantizado, así como sobre los complementos que se regulan en el presente convenio.

Ambas partes acuerdan topar el incremento salario anual en un 6 % para los ejercicios 2024, 2025 y 2026. Si la evolución de los IPC interanuales de los ejercicios 2023, 2024 y 2025, impidiesen la recuperación del 3 % adicional pactado para cada año, la diferencia se compensará en el ejercicio siguiente, respetándose siempre el tope establecido del 6 % anual; o, en su caso, sobre las tablas del año 2026 con efecto 01-01-2027. En este supuesto, el pago de atrasos y la actualización correspondiente se realizará en el primer trimestre del año 2027. En el caso de ser necesaria la aplicación de esta regularización, las tablas salariales resultantes se consolidarán a partir 01-01-2027.

Artículo 14. Gratificaciones extraordinarias.

Todas las personas trabajadoras que afectadas por este Convenio colectivo percibirán las dos pagas extraordinarias reglamentarias más la antigüedad en su caso, prorrateada mensualmente, salvo acuerdo contrario entre las partes. De no mediar acuerdo para su prorrateo las pagas se harán efectivas el 15 de julio y 15 de diciembre.

Artículo 15. Plus de antigüedad.

1. El plus de antigüedad para las personas trabajadoras afectadas por el presente convenio se devengará en forma trienios. Se establece el tope máximo a percibir en diez trienios.

2. Las personas afectadas por el presente convenio comenzarán a computar la antigüedad para su devengo a partir del inicio de la vigencia del presente convenio, 1 de marzo de 2023.

3. No obstante, a lo anterior, las personas trabajadoras que a la fecha del inicio de la vigencia del presente convenio vinieran percibiendo el complemento de antigüedad, mantendrán el mismo congelado como complemento ad personam, en la cuantía bruta real percibida a fecha 28 de febrero de 2023. Dicha cuantía no será ni absorbible ni compensable, si bien devengaran antigüedad a partir de la entrada del inicio de la vigencia del convenio.

4. Antzinasunaren kontzeptua sortu eta ordaindu duten enpresetan ad personam osagarria ezartzerakoan, 2023ko martxoaren 1ean sortutako hirurtekoak ez ezik, azken hirurtekoa sortu zenetik 2023ko otsailaren 28ra arte igarotako denbora ere hartuko da kontuan, dagokion zati proportzionala ordaintzeko. Alegia, azken hirurtekoa 2021eko irailean sortu bazen, data horretatik 2023ko otsailaren 28ra arte sortutako hirurtekoaren zatia kontuan hartuko da, ad personam osagarrian zati proportzionala ordaintze aldera.

5. Ad personam osagarria 14 ordainsaritan ordainduko da, edo 12 ordainsaritan, ordainsariak hainbanatuta kobratzea erabaki den edo ez kontuan hartuta.

6. 2023ko martxoaren 1etik aurrera sortutako hirurteko berrien baturak (finkatutako ad personam izaerakoak barne) ezin izango du 10 hirurteko gehieneko muga gainditu.

16. artikulua. Aparteko orduak.

Laneko arau orokor gisa, ezin izango da aparteko ordurik egin, salbu eta ezinbesteko kausen ondorioz edo ekoizpen altuko aldiak, ezusteko hutsuneak, txanda-aldaketak edo mantentze-beharrizan zorrotzak egotearen ondorioz beharrezkoa bada halakorik egitea, aldi baterako kontratazioekin edo lanaldi partzialeko kontratazioekin behar hori estali ezin delako. Horri dagokionez, enpresa bakoitzean, langileen legezko ordezkariak eta zuzendaritzak zehaztuko dute zein kasu sar daitezkeen aurreko apartatuan adierazitako kausetan.

Nolanahi ere, langileen delegatuei eta enpresa-batzordeko kideei hileroko jakinaraziko zaie zer aparteko ordu egin diren, bai eta zergatik egin diren ere. Informazio hori enpresak sinatu eta zigilatuko du.

Enpresako zuzendaritza eta langileen ordezkariak edo, halakorik ezean, langileak berak ados jarrita, aparteko orduen zenbatekoa finkatuko da, eta, ahal dela, atsedenez konpentsatuko dira.

17. artikulua. Jaiegunak.

Jardueraren beharra dela-eta berreskuratu ezin diren jaiegunetan lan egin behar bada, jaiegun horiek honela konpentsatuko dira:

a) Langileak soldata arrunta eta % 75eko igoera jasoko du jaiegunetan lan egiteagatik, soldata-maila bakoitzerako formula honen arabera:

$$\frac{\text{Oinarrizko soldata} + \text{Antzinasuna} \times 1,75}{30}$$

Formula hori aplikatuz, soldata-maila bakoitzerako berreskuratu ezin diren jaiegunen balioa dagokion eranskinen zehaztuko da.

b) Lan egindako jaiegunak beste une batean hartzea, % 50eko igoerarekin, egun horiek laneguntzat jota. Horretarako, kontuan hartuko da hitzarmena interpretatzeko batzorde mistoaren 1982ko urriaren 18ko ebazpenaren edukia. Funtsean, hau dio:

«Asteko atsedeen-eguna ordainduriko jaiegun batekin bat datorrenean, jaiegun hori inola ere irentsi gabe konpentsatu behar da, eta egoera hori gertatzen den egun bakoitzeko egun bat hartu edo kobratuko da».

Enpresa eta langilea ez badira ados jartzen lan egindako jaiegunak konpentsatzeko moduari dagokionez, alderdi bakoitzak nahi duena aukeratu ahal izango du, lan egindako egunen erdiari dagokionez.

4. A la hora de establecer el complemento ad personam en aquellas empresas que hayan venido devengando y retribuyendo el concepto de antigüedad se tendrán en cuenta no solo los trienios ya generados a fecha 1 de marzo de 2023 sino también el tiempo transcurrido desde que se generó el último trienio y la fecha 28 de febrero de 2023 con el fin de abonar la parte proporcional que correspondiera. Es decir, si el último trienio se generó en septiembre de 2021 la parte del trienio generada desde esa fecha y el 28 de febrero de 2023 se tendrá en cuenta a efectos de abonar la parte proporcional en el complemento ad personam.

5. El complemento ad personam se abonará por 14 pagas o por 12 en función de si se opta por cobrar las pagas prorrateadas o no.

6. La suma de los nuevos trienios devengados a partir del 1 de marzo de 2023 unidos a los que con carácter ad personam se hubieran consolidado, no podrán superar el tope máximo de 10 trienios.

Artículo 16. Horas extras.

No podrán efectuarse, como norma general de trabajo, horas extraordinarias, quedando exceptuadas aquellas situaciones en que, por causas de fuerza mayor, o por existir períodos punta de producción, ausencias imprevistas, cambios de turno o necesidades estrictas de mantenimiento, fuese necesaria su realización y no fuera posible su sustitución por contrataciones temporales o a tiempo parcial. A este respecto, en el seno de cada Empresa, la representación legal de los trabajadores y la Dirección de ésta, determinarán los distintos supuestos que sean ineludibles en las causas señaladas en el apartado anterior.

En cualquier caso, los Delegados y Delegadas de Personal y miembros del Comité de Empresa, serán informados mensualmente de las horas extraordinarias que se hayan efectuado, así como de las causas que lo motivaron. Esta información irá firmada y sellada por la Empresa.

Mediante acuerdo entre la Dirección de la empresa y la representación de los trabajadores/as, o en ausencia de ésta con los propios trabajadores/as, se fijará la cuantía de las horas extras optándose preferentemente por su compensación en descaño.

Artículo 17. Festivos.

Si por necesidad de la actividad se hace preciso trabajar en días festivos no recuperables, éstos se compensarán de una de las maneras siguientes:

a) La persona trabajadora percibirá el salario ordinario con un incremento del 75 % por haber trabajado en festivo, con arreglo a la siguiente fórmula para cada nivel salarial:

$$\frac{\text{Salario Base} + \text{Antigüedad} \times 1,75}{30}$$

Como aplicación de esta fórmula, el valor del día festivo no recuperable para cada nivel salarial es el que se especifica en el anexo correspondiente.

b) Disfrutar en otro momento los festivos trabajados con un aumento del 50 %, teniendo estos días la consideración de laborables. A tal efecto se tendrá en cuenta el contenido de la resolución de la Comisión Mixta Interpretativa del Convenio de fecha 18.10.1982, que sustancialmente dice:

«Cuando coincida la fiesta de descanso semanal con una fiesta abonable, ésta deberá ser compensada sin ser, en ningún caso absorbida, procediendo al disfrute o al cobro de un día por cada día en que se de esta circunstancia».

Si entre la empresa y la persona trabajadora no se pusieran de acuerdo en la manera de compensar los festivos trabajados, cada parte podrá elegir la que quiera de las alternativas, referida a la mitad de los días que se hayan trabajado.

Egunak hartzea aukeratuz gero, zein egunetan hartuko dituen ere aukeratuko du langileak, eta oporraldiari gehitu ahal izango zaizkio, honako salbuespen hauekin:

– «Enpresak ixtea erabakitzen duenean jaiegunetako lana konpentsatzeko, egokitzat deritzon datan, itxi era gutxienez ondoz ondoko zazpi eguneko izango da, metatutako atsedendaldia edo horren zatia egun kopuru horretara heltzen ez den kasuetan izan ezik».

– Egunak ezin izango dira hartu hitzarmen honen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera oporrak hartu ezin diren aldietan.

18. artikulua. Gauekotasuna.

Arau hauen arabera arautuko da:

a) Hitzarmen honetan arautzen diren soldatak eta gaine-rako baldintza ekonomikoak ezartzeko, kontuan hartu da ostalaritzako lana, oro har, guztiz edo partzialki gauekoa dela berez, Langileen Estatutuaren 36.2 artikulua arabera.

